

## IDEIA:

Hasteko, gure enpresa aukeratzekoan pertsonen beharretan pentsatu dugu, beraiei ahalik eta erreztasun gehien ekarriko diena hautatu dugu. Konturatu gara gure herrian kanpotar asko bizi direla eta honen ondorioz beraien herrietan eskuragarri zituzten produktu tradizionalak hemen ez zituztela. Hau susmatzerakoan pentsatu genuen produktu hauek eskuragarri izateko modu bat. Ideia honi esker, bezeroen behar hauek asetzeko ¡Munduko bira! izeneko denda fisikoa eta [www.munduko-bira.com](http://www.munduko-bira.com) online denda sortu dugu, non, munduko herrialde eta kultura desberdinetako produktuak salduko diren; adibidez: Alemania, Errusia, EEUU, Mexiko, India, Japonia, Italia, Vietnam, Errumania, Argentina. Proiektu honi esker, ez dira bakarrik kanpotarrak gure bezeroak izango, baizik eta herriko jendea ere, hau da, kultura ezagutzeko eta janari berriak probatzeko bitxiak diren pertsonentzat.